

**Segurako Udaleko eta Mutiloa-Zalduondo-Zerain udal elkarteko Idazkaritza
lanpostuak bitarteko funtzionarioek betetzeko hautaketa prozesua**

(2020/06/24ko GAO, 118. zk.):

Goian aipatu hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileak, 2021eko martxoaren 5eko bileran, erabaki hauek hartu ditu, besteak beste:

1.- Xede horrekin emandako epean ez denez erreklamaziorik egon, lehiaketaldian alegatu eta egiaztatu diren **merezimenduen behin-behineko balorazioa behin betikotzat jotzea** eta argitaratzea oinarrietan ezarritako moduan. Honakoa da:

4. HE egiaztatu duten hautagaiak:

HAUTAGAIA	Lan esperientzia		Prestakuntza		GUZTIRA
	9.1.1.a)	9.1.1.b)	9.1.2.a)	9.1.2.b)	
Lapatza-Gortazar Bengoa, Patxi Jagoba (**8319**)	1,85	0	0	0	1,85

3. HE egiaztatu duten hautagaiak:

HAUTAGAIA	Lan esperientzia		Prestakuntza		GUZTIRA
	9.1.1.a)	9.1.1.b)	9.1.2.a)	9.1.2.b)	
Alonso Sarasola, Lia (**4021**)	0	0	0	0	0
Latasa Sorondo, Aitziber (**5641**)	0	0,84	0	0	0,84
Ugalde Arruti, Edurne (**4619**)	EZ DU MEREZIMENDURIK AURKEZTU				

2.- Horrenbestez, hautaketa prozesua gainditu duten izangaien azken kalifikazioa, 2021eko otsailaren 25eko bileran zehaztutakoa, berretsi eta berriro argitaratzea. Honakoa da:

4. HE egiaztatu duten hautagaiak:

HAUTAGAIA	Oposizioaldia	Lehiaketaldia	GUZTIRA	HURRENKERA
Lapatza-Gortazar Bengoa, Patxi Jagoba (**8319**)	17,91	1,85	19,76	1.a

3. HE egiaztatu duten hautagaiak:

HAUTAGAIA	Oposizioaldia	Lehiaketaldia	GUZTIRA	HURRENKERA
Alonso Sarasola, Lia (**4021**)	20,12	0	20,12	2.a

Latasa Sorondo, Aitziber (***5641**)	18,79	0,84	19,63	3.a
Ugalde Arruti, Edurne (***4619**)	19,13	0	19,13	4.a

3.- Hautaketa prozesuan lehen postuan gelditu den **Patxi Jagoba Lapatza Gortazar-Bengoak**, 2021eko martxoaren 1ean, izendatua izateari uko egin dionez, azken kalifikazioaren arabera hirugarrena den izangaiari, **Aitziber Latasa Sorondori**, 5 egun naturaleko epea ematea deialdia arautzeko hamaikagarren oinarrian aurrekusi dokumentazioa aurkezteko; hau da: **2021eko martxoaren 8tik 12ra arte** (biak barne). Izangai hau Mutiloa-Zalduondo-Zerain udal elkarteko Idazkaritza lanposturako proposatuko da, hautaketa prozesuan bigarren gelditu den izangaiak Segurako Udaleko Idazkaritza lanpostua aukeratu duenez.

Ezinbesteko kasua tartean egon gabe ez baditu aipatu agiriak epe barruan aurkezten, aurkeztutako agirien arabera ez badu betetzen bigarren oinarrian ezarritako baldintzetakoren bat, edo ez badu lanpostuari dagozkion zereginak gauzatzeko behar den gaitasun fisikoa edo psikikoa, ezingo zaio bitarteko funtzionario izendatu; eta baliogabetuta geratuko dira egindako jardunbide guztiak. Hori gertatzen bada edo proposatutakoak izendatua izateari uko egiten badio, azken kalifikazioaren arabera hurrengoa den izangaia izendatzeko proposamena egingo du epaimahaiak.

Seguran, 2021eko martxoaren 5ean.

Epaimahai kalifikatzaileko idazkaria,

Sin.: Diego Tocino Casales.

